

Katedrako argitalpenak

Revista de Derecho y Genoma Humano/Law and the Human Genome Review delakoaren 24. aleak argia ikusi du, 2006ko urtarrila-ekaina epeari dagokiona. Honakoak da bere edukia: *To clone alone: The United Nations' Human Cloning Declaration* (Rosario M. Isasi / George J. Annas); *La protección de los datos sanitarios y genéticos en España. Un análisis desde los principios*

Katedrako Kideen lana

Carlos Romeo Casabona. Maiatzak 31 eta ekainak 3 bitartean HUGO (Human Genome Organization)ek antolatutako *11. Giza Genoma topaketan* parte hartu zuen Helsinkin. Bertan bildu zen erakunde horren Etika Batzordea, bera ere haren kide dela. Bestetik konferentzia ugari aurkeztu ditu eta horien artean nabarmendu daitezke: "European Patent Law and Ethics" hitzaldia, Parisen aurkeztua 2006ko urtarrilaren 15-16an; "Iniciativas legislativas actuales sobre Biomedicina en España" eta "Responsabilidad penal derivada de prácticas genéticas", Mexicoko Unibertsitate Nazional Autonomo antolatutako *Osasun eta Zuzenbideari buruzko Nazioarteko Kongresuan*, 2006ko urtarrilak 23-27an; "Political, legal and regulatory situation in Europe –common aspects and differences: Spain", Heinrich-Böll fundazioak eta Mensch, Ethik und Wissenschaft Institutuak Berlinen antolatutako *European Biopolitics Connecting Civil Society –Implementing Basic Values Civil Society* kongresuan, 2006ko martxoaren 17-19an; "Life, Technology and the Law: A Pluridisciplinary Panel", Trentoko Unibertsitate degli Studii Zientzia Juridikoetako Departamentuak antolatutako *Life, Technology and the Law* kongresuan, 2006ko ekainak 9-10an; "Debate legal actual en Europa sobre investigación con células troncales", Bioetikako Nazioarteko Soziedadeak (SIBI) Ama Zelulei buruz antolatutako Nazioarteko Jardunaldietan, Gijonen 2006ko ekainak 19-21an; "Implicaciones legales de la utilización de muestras biológicas en la investigación biomédica", Euskal Herriko Unibertsitateak, Roche Institutuok eta CIC Biogunek antolatutako udako ikastaroan (*La medicina individualizada, una oportunidad para la innovación*), Donostian 2006ko ekainak 22-23an. Zenbait Master eta Doktorego ikastaroetan ere hartu du parte: Madrilgo Complutense eta Autonomia Unibertsitateek Bioteknologiako Zentro Nazionalarekin batera antolatutako *Nuevas terapias basadas en el Transplante y Manipulación Genética de Células Madre* ikastaroa, 2006ko apirilak 3-7an ("Bioética y Medicina Regenerativa" gaiarekin); Madrilgo Complutense Unibertsitatearen *Derecho Sanitario* Masterrean, 2006ko urtarrilaren 13an ("Información y documentación clínica: ley 41/2002"); Sevillako Unibertsitatearen Kriminologia Institutuok antolatutako *Zuzenbide Penalaren Masterrean*, 2006ko martxoaren 9-10ean ("Medicina y Derecho Penal" gaiarekin); Madrilgo Europar Unibertsitateak antolatutako *Derecho Sanitario* Masterrean, 2006ko maiatzak 19an ("Derecho y genoma humano" gaiarekin).

Sergio Romeo Malanda iragandako apirilak 1ean hasi zen lanean Tasmaniako Unibertsitateko Zuzenbide eta Genetika Zentroan (Australian). Han Donald Chalmers irakaslearen gidaritzapean ikertu egingo ditu "Lagin biologiko eta biobankoen erabilpenarekin zerikusia duten gai juridikoak". Bere egonaldia sustatu egiten da Espainiako Hezkuntza eta Zientziarako Ministerioak emandako doktorego osteko ikerkuntza beka bati esker. Azkenaldian, bestalde, honako lan hauek argitaratu ditu: "Efectos jurídicos de la contravención por parte

generales de protección de datos de carácter personal (Javier García); *Human genome and the protection of human rights in Croatia* (Nenad Hla?a); *La cuestión jurídica de la obtención de células troncales embrionarias humanas con fines de investigación biomédica. Consideraciones de política legislativa* (Carlos María Romeo Casabona); *El caso Evans y el derecho a no ser*

de las Comunidades autónomas de la legislación básica estatal en materia de derechos de los pacientes", José María Vidal Beltrán/Miguel Ángel García Herrerak (koord.) *El Estado Autonomico: integración, solidaridad, diversidad* liburuarren II. alean, Colex-INAP, Madrid, 2005; "Responsabilidad penal por la omisión de tratamientos médicos a recién nacidos gravemente discapacitados (a la vez, una reflexión sobre el concepto de nacimiento en el ordenamiento jurídico español)", *Derecho y Salud*, 1. zkia (2006); "Novedades legislativas en el ámbito de la investigación científica: algunas reflexiones", *Instituto Roche Informa*, 4. zkia (2006). Horrez gain hurrengo hitzaldi hauek aurkeztu ditu: "Direito Penal Simbólico x Direito Penal Preventivo em Relação com a Biotecnologia Humana", 11º Seminário Internacional del IBBCRIM (Instituto Brasileiro de Ciências Criminais), São Paulo, 2005eko urrian; "Confidentiality and Biotechnology: Ethical and Legal Rights and Duties", Etika Medikarako Zentruen Europar Elkartearen (AECCEM/ EACME) eta European Society for Philosophy of Medicine and Healthcare (ESPMH) erakundeek antolatutako kongresuan: *Ethics and Philosophy of Emerging Medical Technologies* (Barcelonan 2005eko abuztuaren 25ean).

Aitziber Emaldi Cirionek irakasle giza parte hartu du Madrilgo Unibertsitate Complutensearen *Derecho Sanitario* Masterrean eta Deustuko Unibertsitatean Zientzia Politiko eta Soziologia Fakultateak antolatutako *Master Internacional en Políticas Públicas y Desarrollo Territorial* delakoan. "Panorama ético-jurídico de la Medicina Individualizada" idazlana argitaratu berri du *Preguntas éticas en cuestiones disputadas hoy* liburuan, Deustuko Unibertsitateak argitaratuta, Donostia, 2005. Bestetik hurrengo hitzaldiak aurkeztu ditu: "Consejo genético", *Ezintasun fisikoak duten pertsonen buruzko I. Kongresuan*, Bilbon 2006ko maiatzak 24-26an; eta "European bioethics approaches to understanding of Health: traditional and non traditional medicine", Kyiv-en (Ukrainian), 2006ko maiatzan.

Leire Escajedo San Epifaniok argitaratu berri ditu honako lan hauek: "Nutrigenómica, integración económica y protección jurídico-constitucional de los consumidores en la UE" (I) y (II), *Revista de Derecho Alimentario* delakoaren 9 eta 10. aleetan, 2006ko otsaila eta martxoan; eta, Carlos Romeorekin batera, "Aspectos jurídicos de la nutrigenómica" idazlana argitaratu du *Nutrigenética y Nutrigenómica* talde-liburuan, Monografías Humanitas bildumaren bederatzigarren zenbakian.

Amelia Martín Urangak FARMA-INDUSTRIAn egiten du lan 2006ko urtarriletik hona. Bertan *Medikamendu berrien* Espainiar Plataforma Teknologikoaren Idazkari da, erakunde honen helburu dela medikamendu berrien ikerkuntza sustatzea eta horretarako bultzatu egiten du parte hartzen duten ekile guztien arteko kooperazioa: industria, akademia, ikertzaileak, talde zientifikoak, herri administrazio ezberdinak, etab. Madrilgo Comillasgo Unibertsitate Pontifizioaren *Master de Propiedad*

Intelectual delakoan (ICADE) parte hartu du, bioteknologia eta jabetza intelektual-industrialari buruzko modulu bat eskainiz. Bestetik, eta beste edizio batzuetan ere gertatu den bezala, *Genoma Española* antolatutako Bioemprededoreentzako BioAnceñ ikastaroan gai juridikoei buruzko adituen foroaz arduratzen da. Roche Institutuok argitaratu berri duen *Guía práctica para la utilización de muestras biológicas en investigación biomédica* liburuan parte hartu du ere, Madril, 2006.

Pilar Nicolás Jiménezek hurrengo hitzaldiak aurkeztu ditu: "Evaluación de estudios genéticos", Euskadiako Autonomia Erkidegoko Ikerkuntza Klinikoko Batzorde-Etikoen Lehenengo Biltzarrean, Bilbon 2006ko otsailak 21ean; "Aspectos éticos, jurídicos y económicos relacionados con la medicina individualizada", Osasun Publikoko Andalziako Eskolak eskainitako *Fundamentos de la medicina individualizada y sus implicaciones sanitarias* mintegian, Granadan 2006ko martxoak 2an; "La protección jurídica de los datos genéticos de carácter personal", Datuen Babeserako Kataluniar Agentzian, Bartzelonan 2006ko martxoaren 13an; "La protección jurídica de los datos genéticos personales. Identificación de personas a partir del ADN. La investigación científica en genética", Gasteizen 2006ko maiatzaren 5 eta 9an; "La información genética como objeto de derechos fundamentales", La Lagunako unibertsitatean 2006ko maiatzak 15ean; "Aspectos legales de los ensayos clínicos en farmacogenética", Madrilgo 12 de Octubre Hospitalaren Farmazia zerbitzuak eta Roche Institutuok antolatutako *Farmacogenética. Situación actual* jardunaldian, Madrilen 2006ko maiatzak 18an; "Aspectos éticos y jurídicos. La intervención de los CEICs", Roche Institutuok eta Osasun eta Kontsumo Ministerioak antolatutako *Utilización de muestras biológicas en investigación biomédica* jardunaldian, Madrilen 2006ko maiatzak 22ean; "Ethical issues of genetic testing", European School of Oncology eta Ikerkuntza Onkologikoetarako Zentro Nazionala antolatutako *Familial Cancer* ikastaroan, Madrilen, 2006ko ekainaren 15ean.

Asier Urruela Morak gonbidatutako aditu gisa parte hartu zuen Europar Komisioak Bucarest-e (Rumania) antolatutako *Ethical Approach of Biomedical Research* bileran, 2006ko maiatzak 4 eta 5ean. Aurkeztu zuen lanaren izenburua da "Implications and risks in using genetic findings, i.e. in legal proceedings, employment, insurance, education and health care". Bestetik Aragoiko Osasun Zientzietarako Institutuak eta Aragoiko CEIC-ek antolatu zuten *Medicina Regenerativa. Implicaciones para los Comités Éticos de Investigación Clínica* jardunaldietan aurkeztu "Estatutu del embrión. Aspectos jurídicos y cambios legislativos", hitzaldia, 2006ko ekainak 8an. Justizia Ministerioaren Ikasketak Juridikoetarako Zentroak antolatu zuen *Medicina eta Zuzenbideari buruzko Kongresuan* ere parte hartu zuen "Estatutu Jurídico del Embrión" lanarekin, Madrilen 2006ko ekainak 28-30an.

Zuzenbidea eta Giza genoma unibertsitate arteko Katedra

Kideak:	Dr. Borja de Arana Agirretxe	Apartado de Correos, 1
Prof. Dr. Dr. Carlos M ^o Romeo Casabona (Zuzendaria)	Dra. Fátima Flores Mendoza (Aholkularia)	48080 Bilbao
Dra. Aitziber Emaldi Cirión (Ihardunaldi eta argitarapen aldizkakoen Koordinatzailea)	Dr. Ulises Hernández Plasencia (Aholkularia)	Tel.: + 34 94 413 92 87
Dr. Asier Urruela Mora (Mintegi eta monografiaren Koordinatzailea)	Dra. Amelia Martín Uranga (Aholkularia)	+ 34 94 445 57 93
Dra. Leire Escajedo San Epifanio (Graduatu ondoko ikasketen Koordinatzailea)	Dr. Esteban Sola Reche (Aholkularia)	Fax: + 34 94 445 55 13
Dra. Pilar Nicolás Jiménez (Ikerkuntza-proiektuaren Koordinatzailea)	Leire Larrazabal Laradogoitia	llarraz@genomelaw.deusto.es
Dr. Sergio Romeo Malanda (Nazioarteko Harremanak)	(Idazkari Administratiboa)	www.catedraderechoygenomahumano.es
Dr. Iñigo de Miguel Beriain		

Perspectivas

en Derecho y Genoma Humano

7 Zenbakia, 2006 Uztaila

Unibertsitate arteko Katedra BBVA Fundazioa-Bizkaiko Foru Aldundia Zuzenbidea eta Giza Genoma. Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea

Director: Prof. Dr. iur. Dr. med. Dr. h.c. mult. Carlos María Romeo Casabona

Boletín hau argitaratzen da ingelesez eta gaztelaniaz ere

Albiste interesgarriak

Carlos María Romeo Casabona irakaslea *Doctor honoris causa* izendatu dute Tenerifen, La Lagunako Unibertsitatean



Iragandako maiatzaren 12an Carlos Romeo Casabona irakaslea izendatu zuten *Doctor honoris causa* La Lagunako Unibertsitatean. La Lagunako unibertsitateko errektorea den Ángel Gutiérrez Navarrok eman zion hasiera ekitaldiari, Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea den Juan

Ignacio Pérez Iglesias eta Carmen González Murua errektoreordearen laguntzarekin. La Lagunako Unibertsitateko Idazkari Orokorra den Fátima Flores Mendozak irakurri zuen Carlos Romeo *Doctor Honoris causa* izendatzen duen erabaki irmoa eta haren ondoren Doktoregoaren goraiapamena egin zuen bere aitabitxi den José Ulises Hernández Plasenciak. Inbestiduraren unean Carlos Romeo Casabona irakasleak "Causalidad, determinismo e incertidumbre científica en el Derecho penal" hitzaldia aurkeztu zuen. La Lagunako Unibertsitateko Errektorearen esanetan ohoratuak betetzen ditu maisu bati dagozkion bi baldintza ezinbestekoak, bere mailakoen artean meritu garrantzitsuak eduki eta dizipluluei irakasbide eman izana.

Carlos Romeo Casabona irakasleak jasotzen duen laugarren Honoris Causa doktoregoa da hau. 2004 urtean beste hiru jaso zituen Tacnako Unibertsitate Pribatu (Peru), Arequipako San Agustingo Unibertsitate Nazional (Peru) eta Arequipako Santa Mariako Unibertsitate Katolikoan (Peru).

Inbestidura ekitaldiaren ondorengo egunetan eta hura zela eta, La Lagunako Zuzenbide Fakultatean ospatu egin ziren Jardunaldi batzuk (maiatzak 13-16an), "Nuevos retos del derecho penal: respuestas al desarrollo social y tecnológico" gaiaren inguruan. Haietan parte hartu zuten, Romeo Casabona irakaslea eta beste aditu batzuen artean, Zuzenbidea eta Giza Genoma Katedrako kideek ere. Aitziber Emaldi Cirion-ek aurkeztu zuen "Documento de voluntades anticipadas y autonomía del paciente" hitzaldia; Amelia Martín Urangak, berriz, "La lucha contra la piratería industrial e intelectual a la vista de las recientes reformas normativas"; Pilar Nicolás Jiménez-ek landu zuen "Protección jurídico-penal de los datos de carácter personal. Especial consideración de la documentación clínica" gaia; Sergio Romeo Malandak, bere partez, "Delitos genéticos: ¿función preventiva o función (meramente) simbólica?"; eta, azkenik, Asier Urruela Morak eta Iñigo de Miguel Beriainek jorratu egin zituzten, bakoitza bere aldetik, "Los retos del Derecho penal en la Sociedad de la Información" gaia eta "El Derecho en la era de la globalización".

Iritzia

Giza Enbrioia: Eguneratzeko beharra duen Kontzeptua

Jakina da soberan Biologia eta Medikuntza faktuetatik sekula aldendu ezingo diren bitartean, Bioetika eta Biozuzenbidearen kasua dela kontzeptuen mirabe direla, diziplina humanistiko diren heinean. Kontzeptu horien guztien artean gutxi dira Giza enbrioia baina garrantzia handiagoa dutenak. Hari eskaini zaizkio zenbait monografiko eta artikulu, hitzaldi, eztabaida eta mintegi ugari. Baina hala eta guzti ere ez da inoiz lortu gako garrantzitsuenei buruzko akordiorik (adibidez, haren estatutu antropologiko, etiko edo juridikoari dagokionean). Beti ere desatsegina den disfuntzio honek are eta garrantzia handiagoa hartzen du egungoen gisako uneetan, non gure arautegian bideratzen ari diren lagundutako ernalkuntza eta ama zelulen eta biobankuen inguruko zenbait aldaketa. Horregatik uste dugu merezi duela desadostasun hauek gainditzeko saioa egitea, berriro ere irekiz oinarritzkoa den Giza Enbrioia definizioaren eztabaidari bide emanez.

Egia da bai ideia hau kokatzeko berreskuratu egin behar dugula giza enbrioia definizio tradizionala, hura "ernalketaren emaitza" gisa adierazten duena: hau da, espermatozoide eta obulu baten topaketaren fruitu bezala. Definizio hau, baina, akasduna dugu, haren barne geratzen baitira ezaugarri ezberdinak izaki asko. Zentzu honetan garrantzitsua da gogoratzea ernalkuntza oso prozesu konplexua dugula eta hortaz desberdinak izan daitezkeela oso harengandik suertatutako emaitzak. Ernalketa batek ekar lezake gizaki heldu bat, bai, baina baita ere izaki aberrante baten sormena ere. Azken hauen artean ditugu adibide kimera eta mosaikoak; hau da, haien ADN hain eraldatua duten zelula batzuk, non sekula ere ezingo diren era egokian garatu. Euren kasua, dena den, ez da, ezta gutxiago ere, molena bezain ikusgarri ezta arduratzekoa; ADN alderrai baten ondorioz zelula multzo hauek behin da berriro anizten dira eta emakumearen heriotza saihesteko erazi behar izaten dira, minbiziak bailira. Deskribatutako kasu hauek ez dira, ez, salbuespenekoak. Izan ere, eta baikorrak izan arren, datuek egiaztatzen dute ernaldutako obuluen erdiak baino gehiago duela hain akats larriak non sekula ezingo diren umetokian ezarri; hori gerta daiteke azaldu berri ditugun zirkunstanzietatik, edota garapenean inplikaturiko dagoen generen baten eruz, OCT4 edo CDX2 geneak kasu direla.

Nahiz eta Datu Biologikoek oso forma argian islatu, gure arautegi kontzeptualistak ez du inoiz bereizketarik onartu ernaldutako enbrioien artean,

eta guztiak hartu ditu Giza Enbrioiaren kontzeptuaren barne. Egoera honen aurrean egiteko gai izan garen bereizketa bakarria izan da enbrioi “bideragarri” eta “bidera ezinen” artekoa; aurreneko goitizena eman zaie izaki bizidun bihurtu daitezkeenei eta bigarrena, berriz, izaki bizidun bihurtu baino lehen hilko liratekeenei. Bereizketa hau, dena den, txarto ikusia egon da beti aditu talde zabal batzuetan. Ernalketa unean bertan izaki bat sortzen dela uste dutenen ikuspegitik, adibidez, gisa honetako sailkapenak kritikatzekoak dira izaki bizidunen artean bereizketak ezartzen dituztelako gaitasunen zioz. Beste batzuk uste dugu, ordea, bidera ezin goitizena erabilia ere ez dela egokia enbrioi izena ematea garatzeko gaitasunik erabat ez duen izakiari, izatez esan beharko litzatekeelako besterik gabe izaki hori ez dela enbrioi bat. Hala eta guzti ere terminologia hori irmo mantendu da urte askotan, Klonazio Terapeutikoaren antzeko agerpenek argi utzi duten arte giza enbrioiaren definizio tradizionala egokia ez dela bizitzaren hasierari buruzko eztabaida sakonari aurre egiteko.

Honi dagokionean uste dugu komenigarria dela hemen gogoratzea (txarto izendatutako) *klonazio terapeutikoa* delakoari uko egiten diotenen, edo behintzat nukleoen aldaketa erabiltzen duen gisa honetako klonazioari, funtsatu egiten dutela euren ezetza bide honetatik lortutako zelulak enbrioiak direla argudiatuz. Argumentu honi aurre egitea, ordea, ez litzateke oso zaila izango Giza Enbrioiaren ohizko definizio mantendu esker: zelula hori ernalketa baten emaitza ez dela esatearekin nahikoa genuke, hau da, ez datorrela obulu eta espermatozoiden baten biltzetik sortu, eta beraz definizio tradizionalaren arabera argi legoke ez gaudela Giza Enbrioi baten aurrean. Konponbide honen arazoa da segur aski harekin ez genukeela azaldutako argumentua defendatzen dutenen arteko inor ere konbentziturik. Egia esan, baliteke gainera haien haserrea piztea eta salatzeraz bultzatzea guk argudiatutakoa sofismaren bat edo hitz jokoren bat besterik ez dela. Hala eta guzti ere orain arte esan dugun guztiak badu bere logika sendoa: baldin eta enbrioia bada ernalketa baten ondorioz sortutako izakia bada eta Klonazio Terapeutikoan ez dagoenez ernalketarik, argi dago prozesu horren bitartez lortutako zelulari ezingo litzaikeela enbrioi izena eman. Nondik etorriko lirateke orduan kontrakoa defendatzen duten argudioak?

Maiz emaitza zoriontsuak ematen dizkigun metodo bat jarraituz, esango dugu akatsa premisetan bilatu behar dela hura arrazonomenduan topatzen ez denean. Zehatzago esateko, guk uste dugu kasu honetan aurkitzen dugun zailtasuna dela aipatu dugun

enbrioi kontzeptuaren definizio horretatik aldantzen den beste bat erabiltzen dutela nukleo aldaketaren ondorioz lortutako zelulei enbrioi izena ematen dietenek. Bestelako definizio horren sintesia hau genuke: “X momentua arte garatzeko gaitasuna duen entea” edo, nahiago bada eta hitz teknikoagoak erabiliz, “X arte garatzeko potentzialitate nahikoa duen entea”.

Ikusten dugu, beraz, klonazio terapeutikoari egiten zaion ukoa ulergarria suertatzen dela soilik, baldin eta enbrioiaren definizio klasikoaren ordezko alternatiba bat badugu. Honek, noski, ez du zertan negatiboa izan behar, kontuan hartzen badugu gainera definizio hori beste edozein alternatiba baino erabilgarriagoa dela. Dena den horrek ez du esan nahi definizio alternatibo egian esan, bi auzi konplexu eta interesgarriak sortarazten dituela. Lehenbizikoa dugu aukera honek posible egiten duela esatea ernalkuntzatik aparteko jatorria duten enbrioiak egon daitezkeela, baina jakinda aldi berean onartu egiten dela aurkakoa, hau da: potentzialitate hori ez duten heinean, egon daitezkeela enbrioiak ez diren obulu ernalduek. Korapilotsuagoa da bigarren auzia, zeren emandako definizioak eskatzen digu enbrioiarena baino lehenagokoa den gizaki definizio bat ematea, benetan hari erabilgarritasuna eman nahi badiogu. Beharizan honen arazoa sinplea da: enbrioia definitu badugu X unea arte garatzeko duen gaitasuna kontuan hartuta, jakiteko ente bat definizio horretan barneratu daitekeen edo ez gehiago zehaztu beharko dugu esaldi horren predikatua. Hau da, enbrioia definitu aurretik beharrezkoa dugu puntu edo une X hori zehaztea. Ezin sostengatu daiteke, ondorioz, pertsona enbrioiaren ideiatik abiatuta definitu daitekeenik. X hori zehazteak emango digu, kontrara, pertsonatzat ulertzen duguna. Hau dela eta, noski, pertsona ezin daiteke giza pentsamendua baino lehenagoko datu bezala hartu, ulermen honek dituen ondorio guztiekin.

Aurkeztu diren bi objektuetako edozein (eta bereziki bigarrena) konpontzeazaila gerta dakioke moralista bati, dudarik gabe. Juristak, ordea, haiei aurre egiteko tresna nahikoa du. Lehen objektuari dagokionean, definizio aldaketak duen esanahia ez delako, funtsean, klasifikazio biren arteko ordezkapen bat besterik: enbrioi bideragarri eta bidera ezinen ordez, blastozistak enbrioi eta gorpu enbrioidetan sailkatuko lirateke. Bigarren objektuari dagokionez, nahikoa genuke kontuan hartuko bagenu juridikoki pertsonaren kontzeptua tradizionalki ondo mugatuta egon izan dela ordenamendu juridiko guztietan, eta badakigu beraz aurreikusitako definizioaren Xa kokatzeko zailtasunik egongo ez dela. Espainiar

ordenamenduan, adibidez, enbrioia izango litzateke jaiotza arte garatzeko gai den enbrioia, une horretan jasotzen baita nortasun juridikoa. Beste kasuetan mami gabeko obulu, mosaiko, kimera, edo beste edozer gauzaz arituko ginatke baina ez enbrioi batez.

Traba txiki horien truke abantaila garrantzitsuak jasoko litzuzke legelariak gisa honetako arkitektura juridiko batengandik. Horrela, eta hasteko bakarrik, enbrioi eta pertsona kontzeptuen artean egun markatu gabe dagoen lokarria ezarriko litzateke behingoz: pertsona izango litzateke izaki jaioa eta enbrioia, berriz, gizaki izatera gara daitekeen zelula. Bestetik, eta horri ezker, errazagoa genuke jakitea ernalkuntzaz besteko prozedura baten bidez lortutako zelula enbrioi bat den edo ez: horretarako nahikoa litzateke jakitea zelula horrek lehen aipatutako zentzuan garatzeko aukera nahikoa duen. Azken hau ezagutzea ez da gaur egun oso zaila, izan badauzkagulako egun adierazle nahiko zehatzak jakiteko giza blastozisto baten aurrean noiz gauden eta haren ezaugarriak zeintzuk diren. Análisi morfologikoak edota gorago aipatu ditugun geneen informazioaren kontrajartzea aski nahikoa dira alde batera uzteko gaur egun arte enbrioi izena jaso duten zelula asko. Jakina da beti geratuko direla beste zenbait zeintzuetan zalantzarako lekua egongo den, baina haietzako beti genuke potentzialitatearen presuntzio bat markatzeko aukera, mamizko diseinua inolaz ere itxuragabetu gabe. Edozein kasutan presuntzio hori *iuris tantum* izango litzateke eta *ez iuris et de iure*.

Joan diren lerroetan adierazitako guztiaren ondorioa izan behar da, gure ustetan, errazagoa litzatekeela enbrioiaren estatutuaren eztabaida amaitu ezinari soluzio ematea hura baino lehenagoko beste eztabaida hau pizteko ahalegina egingo bagenu. Zeren, nahiz eta paradoxikoa iruditu, eztabaidaren baitan faktore berri bat sartu izanak, hots giza enbrioiaren definizio berriak, nahiz eta gatazka gehiago korapilatu arren, badirudi ere tunelaren irtenbidea aurkitzeko argi izpia izan daitekeela. Hortik menturatzen dugu pausu hori emateko ausardia edo zuzentzea gabe, geroz eta zailagoa izango dela bioteknologiak ekarriko dizkigun muga-kasuei aurre egitea.

Íñigo de Miguel Beriain

Katedrako Berriak

Unibertsitate arteko Bioetika Masterrak hasi du bere bigarren edizioa

Unibertsitate arteko Bioetika Masterrak bere bigarren edizioa hasi du *on-line*. La Laguna eta Las Palmas de Gran Canaria Unibertsitateekin batera eskaintzen du Master hau Euskal Herriko Unibertsitateak. Zuzenbidea eta Giza genoma katedraren zuzendari den Carlos Romeo Casabona irakaslea da Masterraren zuzendarietako bat eta "Zuzenbidea eta Bioetika" moduluaren irakaskuntza Katedrako kideen esku dago, Leire Escajedo San Epifanio irakaslearen koordinaziopean.

Masterraren helburu da osasungintzako profesionalei euren lanbidearen egikaritzan agertzen diren aspektu etikoak atzemateko gaitasuna ematea, arazo horietan aurkezten zaizkien gatazka moralak eta baloreak identifikatzatzen. Helburu dira ere aspektu hauek kritiko eta sistematikoki aztertzeke ezagutzak ematea, bai eta trebakuntza praktikoa bat eskaintzea ere, dimentsio hauek erabakiak hartzeko prozesuan barneratu eta arrazoiarekin argudiatzeko gai izan daitezten.

Zuzenbidea eta Giza Genomari buruzko XIII Jardunaldiak

Udaberriro ohi duen bezala apirilak 3 eta 4an Zuzenbidea eta Giza Genoma Katedrak antolatutako Zuzenbidea eta Giza Genomari buruzko Jardunaldiak. 13 edizio honetan inaugurazio hitzaldiaren izenburua izan da "Ikerkuntza biomedikoari buruzko lege ekimen berriak Espainian", Carlos III Osasun Institutuaren zuzendari den Francisco Gracia Navarro irakasle Doktorearen esku. Haren ondoren hasi zen lehen ekitaldia, "Nazioarteko erakundearen ekimen juridikoak Bizia zientzien gainean", Madrileko Rey Juan Carlos Unibertsitatean Nazioarteko Zuzenbide Publiko eta Nazioarteko Harremanetako katedraduna den Carlos Fernández de Casadevante gidatuta. Ekitaldi horretan izan ziren hizlariak: Héctor Gros Espiell, Uruguayko enbaxadore Frantzian eta UNESCOren Nazioarteko Bioetika Batzordearen kide, "Bioetika eta Giza eskubideei buruzko UNESCOren Adierazpena, 2005eko urriak 19koa" aurkeztuz; Javier Rey del Castillo, Lagundutako Ernakuntzarako Batzorde Nazionalaren Idazkaria, "Nazioartean giza klonazioak duen egoera" aztergai izan zuelak; eta Daniel dos Santos Pinto Serrão, Europako Kontseiluko Bioetika Batzordearen kide, "Enbrioien zelula tronkalekin buruturiko ikerkuntzak eta Ovidoko Hitzarmena" gaiarekin.

Bigarren ekitaldiaren gaia izan ziren "Ikerkuntza Genetikoari buruzko ekimenak", Finantza Zuzenbidean katedraduna den Isaac Merino Jarak gidatuta. Bertan aurkeztu ziren honako hitzaldiak: bioGUNE ren CIC-eko zuzendari den Jose María Matok "Biozientzietako ikerkuntza Euskadin" gaia jorratu zuen; Noray Bioinformatics-eko zuzendari den Julio Font Pérez-ek, berriz, aurkeztu zuen "Bioinformatika: ikerkuntza genetikoaren funtsezko tresna"; eta bioGUNEren CICeko zuzendari zientifikoa den Manuel Martín Lomasek bere partez "Teknika berriak eta inplikazio tekniko berriak: Bionanoteknologia".

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Zuzenbide Prozesaleko irakasle den Arantza

Libano Beristainek gidatu zuen "Geneak auzitegiaren" izenburua izan zuen laugarren ekitaldia. Honako hitzaldi hauek aurkeztu ziren bertan: Jose Antonio Martín Pallín, Auzitegi Goreneko Bigarren salako Magistratuaren esku, "ADN perfilen frogaren prozesu penalaren: azken sententziak"; EHU-n Zuzenbide Zibileko irakasle den Itziar Alkorta Idiakenez esku, "Lagundutako ernalkuntzaren gako gatazkatsua"; eta Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide Zibilean katedraduna den Ricardo de Ángel Yágüez-ek, berriz, "Jaioaurretiko diagnosi okerrenatik erantzukizun medikoa: jurisprudentziaren joera".

"Genetika eta Gizartea"ri buruzkoa izan zen laugarren ekitaldia, Deustuko Unibertsitateko Etika Mintegiko zuzendaria den Xabier Etxeberria Mauleonek gidatua. Bertan izan zen hizlari Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia esperimentalen departamentuko kide den Miguel del Campo Casanelles, "Diagnosi genetikoko zerbitzuen ezarpena: euren garrantzi asistentziala" gaiarekin; harekin batera Madrileko Unibertsitate Politeknikoan Biokimikan Katedraduna den Francisco García Olmedok jorratu zuen "Deontologia profesionala eta iruzur zientifikoa"; eta El Mundo egunkarian Osasun sailaren Zuzendari den José Luis de la Serna Fernández de Cordobak, berriz, "Komunikabideak eta zientziaren hedapena" gaia landu zuen.

Ikerkuntza proiektuen nondik norakoak

Europar Komisioak diruz laguntzen dituen bi proiektu berritan parte hartzen du Zuzenbidea eta Giza genoma Katedrak: CHIMBRIDS proiektua, Mannheimgo Unibertsitateko Jochen Taupitz irakaslearen zuzendaritzapean, eta BIOTHET-ED, Genovako Unibertsitateko Franco Celada irakasleak zuzenduta.

CHIMBRIDS proiektuaren helburu nagusia da aztertzea Europa eta Nazioarteko ikerkuntzan hibrido eta kimeren erabilpenak suertatzen dituen auzi zientifiko, etiko, filosofiko eta legalak (ikus www.chimbrids.org). Europar Batasuneko 15 estatu ezberdinetako adituez gain CHIMBRIDS proiektuan parte hartzera gonbidatu izan dira Kanada, Txina, Israel, Japonia, Suiza eta Estatu Batuetako beste zenbait. Hiru dira landuko diren helburuak: alde batetik aztertuko dira gizaki bat eta animalia baten ernalkuntzan azaltzen diren auziak; bestetik harremanetan jarriko dira arlo honetan ikerkuntza zientifikoaren aurrerapen azkarra eta oinarrizko irizpide etiko, filosofiko eta legalen garapena; azkenik hurbildu egin nahi dira zientzia eta gizartea hibrido eta kimerei buruzko eztabaida bultzarazteko Europako eta atzerriko ikerkuntza guneetan.

2006eko ekainak 23 eta 26a bitartean Zuzenbidea eta Giza genoma Katedrak Bilbon antolatutako proiektu honen jarraipen bileretako bat. Bertan izan ziren Katedrako zuzendaria Carlos Romeo Casabona, abegi ematen, eta Iñigo de Miguel.

BIOTHET-ED proiektuak, bere partez, helburu anitza du. Disziplina arteko bilerak antolatutako nahi dituzten zientifikoekin, Ekialdeko Europako zenbait eskualdeetan ikastaroak eskaini eta Bioetika gaietan datu baseak eta argitalpenak prestatzea ere. Aurreneko ikastaroa (*European Course on Biotechnology Ethics*) Txekiako Brno hirian garatu zen ekainak 29 eta uztailak 6a bitartean.

Beste irakasle kualifikatu batzuekin batera han izan zen Romeo Casabona irakaslea, bai eta, katedraren partetik, Iñigo de Miguel Beriain doktorea ere. Proiektuaren web orrialdean aurkitu daiteke ikastaro honi buruzko informazioa, bai eta aurrerantzean ospatuko direnei buruzkoa ere.

Carlos Romeo Casabona irakaslea izendatu berri dute Europako Kontseiluaren Bioetika Zuzendaritza Batzordeko kidea (Eginkizun Juridikoetarako Zuzendaritzan)

Zuzenbidea eta Giza Genoma Katedrako Zuzendaria den Carlos María Romeo Casabona irakaslea izendatu berri dute Europako Kontseiluaren Bioetika Zuzendaritza Batzordeko kide (Eginkizun Juridikoetarako Zuzendaritzan). Europako. Kargua hartu berri zuela parte hartu du Europako Kontseiluak maiatzak 2 eta 5a bitartean Estrasburgon antolatutako duen batzorde honen 30 bileran.

Argitaratu da Ikerkuntza biomedikoan lagin biologikoak erabiltzeko gida

Carlos Romeo Casabona eta Pilar Nicolás Jiménez-en koordinaziopean diziplina ezberdinetako aditu talde entzutetsu batek eskaini du ikuspegi bateratu bat lagin biologikoen erabilpenaren gainean. Erabilpen honen egikitasuna bermatzeko helburuarekin gida bat prestatu dute, geroz eta neurri handiagoan eta garrantzi kliniko handiagoarekin gordetzen baitira gisa honetako laginak.

Roche Institutuok bultzatu duen gida honek "Guía de Muestras Biológicas para la Investigación Biomédica" izenburua du. Bere helburua da ikerkuntza biomedikotik jasotako laginen erabilpena optimizatzea eta gisa honetako ikerkuntzan parte hartzen duten profesionalei eskaintzea lagin hauen erabilpenerako jarraibide argi eta osatu batzuk.

Gidaliburua honen lehentasunezko helburua da ikerkuntza biomedikoan lagin biologikoen erabilpena erraztea, bateratzea eta optimizatzea. Egileek azpimarratzen dute, beste batez, erabilgarria izango dela gida hau bai eguneroko lanerako, bai kontsulta eta irakaskuntzarako material praktikoa sortzeko eta sustatu egingo duela gainera ikerkuntza eta ikerlari, paziente eta lagin-emaleen eskubide-betebeharren garapena. Orotar espero da egun gai hauetan azaltzen diren zalantza legal eta etikoei erantzun ematea.

Web berria

Ekainean abiatu zen Katedraren web berria, www.catedraderechoygenomahumano.es.

Aipatzekoa da Web berria baliagarriagoa dela, bai egituraren ikuspegitik, bai edukiari dagokionean ere. Berritasunak, albisteak eta azken argitalpenen iragarriak web honen sarrera orrian agertzen dira. Nabarmenezkoa da gainera beste zerbitzu eta informazio batzuez gain, berritutako gune honek eskaintzen duela Katedrak abian dituen proiektuei buruzko argibidea. Aurkitu daitezke baita zenbait lotura elektronikoko Zuzenbide eta Genetikari dagokion artean sare nagusian kontu handiz aukeratu izan direnak.